

m30 GREBA OROKORRA

#m30greba

Eskubide sozial eta laboral duinak

Euskal Herriak eredu propioa

Krisia hasi zenetik gobernu ezberdinak ezartzen ari diren politikek emaitza bakarra izan dute: krisian are gehiago sakontzea. Bizi dugun egoera ez da krisi ekonomikoaren ondorioa, krisiaren aitzakian martxan jartzen ari diren politikoen ondorio baina. Politika hauen helburua herritarrak pobretzea eta eskubideak kentzea baino ez da, betikoek aberasten jarraitzen dutela bermatzeko.

Madriko gobernuak inposatu egiten du dekretu eta oinarrizko lege bidez eta, Iruñea eta Gasteizko gobernuak, gehiago sozialari egindako eraso hauei aurre egin beharrean, inposaketok onartzeaz gain, euren eremuan politika antisozial berdinak eta pobretze masiboa dakartenak ezartzen dituzte. Politika horien norabidea aldatzera behartu behar ditugu. Eta modu bakarra borroka eta mobilizazioa dira.

Egiten ari garen bide honek gehiengo hondamendira garamatza eta badakite. Euskal Herriko instituzioei exijitzen diegu euren lehentasun nagusi eta bakarra ez daitezela izan banka eta multinazional handiak, hemen bizi eta lan egiten duten herritarrek bizibaldintza duinak izatea baino; enplegu duina, kalitateko zerbitzu publiko unibertsalak eta prestazio sozial egokien bidez.

Krisiaren hasieratik Euskal Herriko gehiengo sozial langilea honen kontra ari da borrokan. Maiatzaren 30erako deitzen dugun greba orokorra beharrezkoa da, ezinbestekoa da; "nahikoa da!" ozen, energiko eta sendoa da gobernu ezberdinetatik gure eskubideei egiten zaizkien erasoen aurrean.

Baina ez hori bakarrik. Beharrezko salaketa eta borroka honekin batera urrunago joan behar da, alternatiba eraiki behar da. Beste eredu bat posible dela aldarrikatetik eredu hori eraikitzea pasatzea. Lehen urratsa Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna burutzea izango da. Aldarrikapenerako soilik izan beharrean, euskal jendarte guztiaren eta burutzen ari garen borroka denak batzeko lehen pausoa izango den tresna, helburu argien inguruan, eskubide sozial eta laboralen errespetuan eta justizia sozialean oinarrituko den Euskal Herriarentzako eredu propio batera eramango gaituen bidea osatuko dutenak.

Ondorioz, greba orokor honek indarrak bildu, borrokatu eta Euskal Herriarentzako alternatiba eraikitzeko prozesuaren bultzada ere izan behar du. Eredu ekonomiko eta sozial propioa, Euskal Herrian eta Euskal Herriarentzat erabakia eta gehiengo sozial langilearen partehartzearekin erabakiko dena, ez elite ekonomikoarenekin.

Eragile sozialak: AHT Gelditu! Elkarlana, Anitzak, Arabako Pentsionistak, Argilan, Asamblea abierta en defensa de las prestaciones sociales, Asamblea de invisibles, Distintas asambleas de parados y paradas de Bizkaia y Gipuzkoa, Askapena, Asociación de Trabajadoras del Hogar, Asociación de vecinas y vecinos de Bilbao la Vieja, Barrenkale, Berri-Otxoak, Bilgune Feminista, Bizkaiko Emakumeen Asanblada, Colectivo de Parados de Iruñerria, Coordinadora de grupos de San Francisco, Bilbao la Vieja y Zabala, Danok lan, Desazkundea, Eginaren eginez, Eguzki, Elkartzen, Erromoko Greba Batzordea, Eskuz Esku, Ezker Gogoa, Euskal Herriko emakumeen mundu martxako plataforma, Gipuzkoako pentsionisten duintasun elkarte, Ikasle Abertzaleak, Harresiak Apurtuz, Kakitzat, Komite Internazionalistak, Lanegia, M15M Bizkaia, Matxingune taldea, MDMA Taldea, MOC, Mugarik Gabe, Mujeres del Mundo, Pentsionistak Martxan, Plataforma por los derechos sociales de Gasteiz, Plaza Beltza Kultur Elkarte, Posada de los abrazos, Renta Básica Universal Taldea, Salhaketa, Sare Antifaxista, SOS Racismo- SOSArrazakeria, Urtxintxa eskola, Zazpigarren alaba

Sindikatuak: ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE, HIRU, CNT